

PATRIM 4.0 EGOITZA ARTISTIKOAREN PROIEKTUA Igartubeiti Baserri Museoan (EZKIO, GIPUZKOA, EUSKADI)

1) Testuingurua

Igartubeiti Baserri Museoa Gipuzkoako Ezkio herrian dago, eta XV. mendeko dolare-baserria da. Jatorrizko egurrezko egitura eta sagardoa egiteko erabiltzen zen dolarea mantentzen ditu. Espazio kultural aktiboa da, eta euskal gizartearen herentzia kulturala gaur egungo ikuspegia kontuan hartuta transmititzen du. Eraldaketa sozial jasangarria sustatzen du, ondare kulturalaren ikuspegi hezitzaile eta sozialetik.

Egonaldiaren lekua. Ezkio udalerria:

Ezkiok 467 biztanle ditu. Biztanleriaren ezaugarri demografiko orokorrak kontuan hartuta, biztanleriaren zati handi bat adinekoa da, eta horrek agerian uzten du biztanleria zahartzeko joera duen herria dela, eta horrek eragin nabarmena duela haren bizimoduan, beharretan, dinamiketan eta etorkizuneko erronketan.

XX. mendearen bigarren erdira arte, lehen sektorean oinarritu da herria, hau da, nekazaritza-eremuari errotutako, baserriari lotuko herria izan da. Industrializazioak eta horren ondoriozko bizimoduek, Ezkioko erritmoa, beharrak eta ohiturak aldatu zituzten. Bizimodu berri honek, aldaketa sakonekin batera, aukera berriak ekarri zituen. Gaur egun, Ezkioko biztanle gehienak industriatik bizi dira.

Eraldaketa horien ondorioak izan dira landa-eremua definitzen zuten ezagutza, ohitura eta ofizioak galtzea eta belaunaldien arteko lotura haustea.

Bestalde, Ezkioko udalerriak biztanle-kopurua galtzeak **belaunaldien arteko lotura** hautsi du, eta hori da kultura-memoria transmititzeko, berrikusteko eta etorkizunera proiektatzeko aukera ematen duena. **Belaunaldien arteko jakintzen transmisioaren arrakala.**

Sakabanatuta dauden hainbat auzok osatzen dute Ezkio. Igartubeiti Baserri Museoak, ia 25 urteko ibilbidea duenak, eta 2017an inauguratutako tokiko ikastetxeak oso funtzio garrantzitsua dute udalerriko gizarte-, hezkuntza- eta kultura-kohesioan, elkarbizitzarako eta jakintzen elkartrukerako espazio gisa, hirigune ezberdinetara duen distantziak markatutako eremua baita.

Azken urteotan, saihezbidearen eta Abiadura Handiko Trenaren eta geltokiaren lanek eragina izan dute herrian eta hainbat baserrian. Horrek aldaketa handiak eragin ditu inguruneke paisaia naturalean, eta lehendik zeuden bideak berriro diseinatu dira. Horrek guztiak eragina izan du biztanleen eguneroko bizitzan.

Ezkio herri euskalduna da, UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko partaidea da. Euskara bertako gizartea egituratzen duen elementua da eta egoitza artistikoan zehar euskararen erabilera bermatuko da.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

Ezkio-Itsasoko herri eskola:

Eskolak, bere hezkuntza-funtzioa betetzeaz gain, eguneroko bizitzan auzotasuna modu naturalean edo espontaneoan lotzen duten proiektuak lantzen eta bultzatzen laguntzen du.

Ildo horretan, Igartubeiti Baserri Museoak lotura du ikastetxearekin "[Ogibideak, lehen eta orain](#)" proiektuaren bidez. Proiektu horretan, Ezkio-Itsasoko baserrien eta bertan egiten diren lanen mapa bat sortzen da. Horregatik guztiagatik, deialdi honetan Ezkioko eskolak berebiziko garrantzia izango du.

2) Deialdiaren xedea

Testuinguru horretan, deialdi hau irekita dago belaunaldien arteko lotura sustatzen eta indartzen lagunduko duten proiektu artistikoak aurkeztera, bai eta kontakizun, iruditeria eta irudikapen garaikideak berrinterpretatzera ere, Ezkioko udalerrian eta Igartubeiti Baserri Museoan landa-eremutik etorkizuna birpentsatzeko.

Egoitza honetan garatzeko aukeratutako proiektuak antzinako eta egungo jakintzak, kultura eta zientzia, natura eta teknologia, artea eta hezkuntza lotu beharko ditu. Nagusien jakinduria, gazteenen kezkekin uztartuta.

Ezagutzak, jakintzak, memoria, loturak eta emozioak lotzea eta transmititzea.

Belaunaldien arteko lotura horren bidez, narratiba jakin batzuk transmititu eta berrikusi ahal izango dira, eta memoriaren etorkizunera proiektatu ahal izango da, eztabaida sustatuta, legatuak, praktikak eta iruditeriak berridatzita eta estereotipo eta ikuspegi etorkorrak desartikulatuta.

Igartubeitiko Patrim 4.0 egoitza artistikoa kokatuta dagoen lurraldearekin etengabeko harremanean garatuko da.

2.1. Diziplinak

Proposamen hauek onartuko dira: arte bisualak, ikus-entzunezkoak, instalazioak, Land Art, argazkigintza, soinua, antropologia, ikerkuntza, eskultura, performancea eta artistaren eta lurraldearen arteko elkarrizketa lotzen duten adierazpen artistiko edo lan-ildo guztiak, betiere ingurunearen espezifikotasunaren eta testuinguruaren baitan eta paisaia eraldatzeko ideia lotuta.

Beraz, artistaren, lurraldearen eta paisaiaren arteko harremanari lotutako ikerketa-eta ekoizpen-oinarria izan beharko dute eskabideek. Horrek agerikoa izan beharko du kontzeptua, erabiliko diren materialak eta proiektuaren garapena aukeratzerakoan.

Argitaratu gabeko proposamen bakarra aurkeztu ahal izango da, bakarka edo taldeka.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

2.2. Bitartekaritza-plana

Egoitza garatzen den tokiko komunitatea sorkuntza-prozesuaren hasieratik barne hartzeko helburuarekin, hautagai-zerrenden aurkezpenarekin batera bitartekaritza-plan bat aurkeztuko da.

Bitartekaritza-planaren ezaugarriak dira:

- Sortze-prozesua jendaurrean aurkeztea.
- Ezkio-Itsasoko herri eskolan lan-saio bat egitea.

Honako hau ere barne har dezake:

- Ezkioko biztanleei zuzendutako saio bat, artistak zehaztuko duena (egun bat), adostu beharreko egunean.
- Familientzako saio bat.

Artistak bitartekaritza-planerako beste proposamen batzuk egin ditzake. Nolanahi ere, proiektua antolatzen eta laguntzen duen taldearekin adostu beharko da.

Aukeratutako pertsonak Igartubeiti Baserri Museoaren laguntza eta jarraipena izango du, ekoizpen-prozesuan aholku eman eta aukeratutako artistari bitartekaritzan laguntzeko.

2.3. Baliabideak

Igartubeiti Baserri Museoak artistaren esku jarriko ditu bere proiektua garatzeko azpiegiturak.

Ezkioko Udalaren bitartez, Internetez hornitutako lan-espazio bat izango du Ezkioko udalerrian, Igartubeiti dagoen udalerrian, bere jarduera garatzeko.

Aukeratutako pertsonak [Azpeitiko Dinamoa Sormen Gunean](#) dauden baliabideak erabiltzeko aukera ere izango du. Igartubeitiatik 30 minutura dago Dinamoa eta Azpeitiko Kulturaz kultur kooperatibak kudeatzen du. Bertako baliabide (serigrafia makinak, soinu-grabaketarako oianrrizko materiala, liburutegia, entsegu gelak...) eta espazioak (Hitzaren Eremua, Gorputzaren Eremua, Irudiaren Eremua eta Soinuaren Eremua) kooperatibak duen eskuragarritasunaren mende egongo dira.

2.4. Iraupena

Egonaldi artistikoa egiteko epea 2026ko martxoaren 2tik 29ra izango da. Hasiera-edo amaiera-data zertxobait alda daiteke, artistaren disponibiltatearen arabera.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

3) Hautagaien aurkezpena

3.1. Proposamenak bidaltzea:

Proposamenak telematikoki baino ezingo dira bidali, Igartubeiti Baserri Museoaren webgunean eta Patrim 4.0 ekimenaren webgunean dagoen [formularioaren](#) bidez.

 Pribatutasun-oharra *

Esteka honetan klik egitean, Google Formsen kanpoko formulariora sartuko zara. Kontuan izan Googlek zure datuak kanpo-hornitzaile gisa erabil ditzakeela. Hala ere, zure informazioa babestuta egongo da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) arabera, eta gure Pribatutasun Politikan adierazitako helburuetarako bakarrik erabiliko da.

3.2. Dokumentazioa

Honako dokumentazio hau eskatuko da:

- Garatuko den proiektuaren azalpena. (A4 tamainako 5 orrialde gehienez)
- Dosier edo portfolio artistikoa eta CV laburra.
- Motibazio-idatzia (1000 karaktere gehienez).
- Ekintzen gutxi gorabeherako kronograma eta behar den materiala.
- Bitartekaritza-plana
- Produktu bideratutako zenbatekoari dagokion gastuen aurreikuspena.

Dokumentazioa gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez edo ingelesez aurkeztu beharko da.

Dokumentazio guztia **2026ko urtarrilaren 21ko** 17:00ak baino lehen igo beharko da Drivera, horretarako prestatutako [formularioaren](#) bidez.

Hautaketa-batzordeko kideak urtarrilaren 28an bilduko dira eta **otsailaren 2an jakinaraziko dute erabakia.**

4) Balorazio-irizpideak eta hautapen-batzordea

4.1 Balorazio-irizpideak

Hautapen-batzorde bat arduratuko da hautaketa-prozesuaz, eta batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Kalitate artistikoa
- Gaia deialdira egokitzea
- Proiektua egikaritzearen bideragarritasuna, egutegiari dagokionez
- Kalkulatutako aurrekontuan eta gastu erreala bat etortzea

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

- Proiektuaren izaera berritzailea: landa-ingurunearentzako narratiba, iruditeria eta errepresentazio estetikoak, balioak eta jarrera berriak sortzen laguntzea (Ezkio).
- Elkarrekintza eta bitartekaritza-lana tokiko komunitate eta eragileekin batera. Ibilbide artistikoa

4.2 Hautapen-batzordea

Kontratazioaren dokumentazioan eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu ondoren, proposamenak baloratzeko faseari ekingo zaio.

Batzorde bat eratuko da, eta honako kide hauek izango ditu:

- Ezkioko Udaleko kultura-zinegotzia.
- Ezkio-Itsasoko herri eskolaren ordezkari bat
- Ezkioko kultura eta arte arloko profesional bat
- Neste Barousseko Komunitate Komunen ordezkari bat, PATRIM 4.0 proiektuko kidea.
- Igartubeiti Baserri Museoaren ordezkari bat

Ezarritako irizpideak aplikatuta lortutako puntuazioaren arabera hautatuko dira proiektuak.

5) Egonaldiaren finantziazioa

Aukeratutako artistaren ordainsaria 2.200 €-koa izango da (BEZ barne).

Gainera, 1.200 €-ko aurrekontua aurreikusten da ohiko bizilekutik edo bizilekura joateko dietak eta joan-etorriak egiteko. Artistak bizilekura egiten duen joan-etorriko bidaia ere beteko da. Gastu horiek egoitza antolatzen duen lan taldeak kudeatuko ditu.

Ekoizpenerako kalkulaturako aurrekontua 2.000 €-koa da. Horiek ekoizpen horretarako erabiliko dira nahitaez, eta ez dute estaliko instalazio edo obra artistikoaren parte ez diren ekipamendu teknologikoen edo material bibliografikoen erosketa. Aurrekontu hori gastu hori justifikatzen duten fakturak aurkeztearen mende egongo da.

Museoko langileek material horiek erosten lagundu ahal izango diote artistari.

Ostatua artistaren eskura jarriko da.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

6) Konpromisoak

6.1 Artistaren konpromisoak

- Artistak PATRIM 4.0 Proiektuaren logotipo ofiziala erakutsi behar du. Igartubeiti Baserri Museoaren logotipoa ere erakutsi beharko du komunikazio-material guztietan (liburuxketan, karteletan, gonbidapenetan, Interneten...)
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea.
- Proiektuak eta egiten diren prozesu guztiek printzipio hau bete behar dute: ez diote kalte handirik egin behar ingurumenari.
- Memoria txiki bat entregatzea prozesuaren amaieran, egindako ekintzen laburpena jasotzen duena.

6.2 Igartubeiti Baserri Museoaren konpromisoak

- Proposatutako proiektu artistikoan oinarritutako bitartekaritza-plana diseinatzeko eta egikaritzeko aholkularitza eta laguntza ematea.
- Egonaldiaren eta bitartekaritza-ekintzen komunikazio-jarraipena egitea eta hedatzea, bai sare sozialen bidez, bai parte hartzen duten erakundek erabiltzen dituzten ohiko baliabideen bidez.
- Garatu beharreko ekoizpen-prozesuan aholkularitza eta laguntza ematea, kudeatzea, tokiko eragileekiko harremanak egitea eta sortzailearen egonaldiaren ondorioz sor daitezkeen beharrei erantzutea.

7) Jabetza intelektuala:

Artistak deialdi honen esparruan garatzen duen proiektuaren orijinaltasunaren eta egiletasunaren erantzukizuna du, eta Igartubeiti espresuki salbuesten du berme hau ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalte eta galeren erantzukizunetik.

Egileak doan, baina ez modu eskusiboan, ematen ditu ustiapen- eta irudi-eskubideak, horien elementu guztien edo batzuen gainean, 2026ko abenduaren 31ra arte.

Egileak Creative Commons 3.0 Espainia lizentziapean babestea erabaki dezake.

Lagapen hori egileari itzuliko zaio epe hori amaitzen denean.

Hautatutako artistak Igartubeiti Baserri Museoari berariazko baimena ematen dio bere izena deialdi honen helburuetarako egoki deritzon moduan erabiltzeko.

- Irudi-eskubideak

Hautatutako artistak proiektuaren esparruan hartutako irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) erabiltzeko baimena ematen du, ondoren hedatu edo sustatzeko.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFaren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

- Datuak babesteko legea

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu zure datuak K6 Kultur Kudeaketaren (IFZ: B20482303; helbide soziala: PORTUETXE kalea 83, 20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, GIPUZKOA) titulartasuneko tratamendu-sisteman sartuko direla, eta ondoren zehazten direla dagozkien helburuak, kontserbazio-epeak eta oinarri legitimoak:

Egoitza artistikorako hautagaiak jasotzeko formularioa

Helburua: Egoitza artistikorako hautagaiak jasotzea.

Kontserbazio-epea: Emandako baimenari eusten zaion bitartean.

Oinarri legitimoa: Interesdunaren adostasuna.

Datuen tipologia: Oinarritzko datuak: Izena eta abizenak, helbide elektronikoa, IP helbidea eta hautagaiak partekatzen dituen beste datuak.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, legeak jakinarazteko betebeharrak hori ezartzen duenean. Halaber, eta irudi eskubideak klausulak xedatutakoari jarraikiz, zuzkiduren onuradunen izena eta irudia hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie K6 Kultur Kudeaketak eta Igartubeiti Baserri Museoak oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta haiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituzten jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, egoitza artistikoan parte hartzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du deialdian parte hartu. Hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, zuzkidurak ematea eta baliatzea kudeatzeko.

Ezinbestekoa den epean gordeko dira hautagaien eta/edo parte-hartzaileen datu pertsonalak, gehi Igartubeiti Baserri Museoaren eta K6 Kultur Kudeaketaren lege-betebeharrak betetzeko nahitaez gorde beharreko kontserbazio-epean.

Nolanahi ere, hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituela eta erabaki automatizatuak ez hartzeko eskubidea izango duela, profilak egitea barne, tratamenduaren arduradunaren aurrean, baita emandako baimena kentzekoa ere.

Aurretik deskribatutako datuen babesaren arloko edozein eskubide baliatzeko, honako jarraibide hauek bete behar dira:

Idazki bat aurkeztea helbide honetara: PORTUETXE KALEA 83, 20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN (GIPUZKOA) (K6 KULTUR KUDEAKETARI zuzendua) edo posta elektronikoz administracion@k6gestioncultural.com. helbidera.

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da

Azkenik, jakinarazten da, hautagaiek eskubidea daukatela Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko, baldin eta gertaera batek datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudia ez betetzea ekar dezakeela uste baduzu.

K6 Kultur Kudeaketak konpromisoa hartzen du beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzeko, neurri horien bitartez egindako tratamenduek (erabilerari lotutako termino eta baldintzen atalean adierazitakoek) duten arrisku-mailaren arabera, haien osotasuna, konfidentzialtasuna eta erabilgarritasuna bermatzea helburu.

8) Oinarriak onartzea

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

HARREMANETARAKO DATUAK ETA INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Harremanetarako pertsona: Kizkitza Ugarteburu

Ezkio bidea z/g 20709 EZKIO (Gipuzkoa)

+34 943 72 29 78

igartubeiti@gipuzkoa.eus

www.igartubeitibaserria.eus

Kultur Ondarearen Berrikuntza eta Kudeaketa Sortzailearen Sare Pirenaikoa

EFA127/01 proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFaren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da